

**POBREZIAREN AURKAKO ETA DIRU SARRERAK
BERMATZEKO ERRENTAREN ALDEKO HERRI EKIMEN LEGEGILEA**

POBREZIA BUKATZEA EUSKO LEGEBILTZARRAREN ESKU

“Ikusten genuen hazkunde ekonomikoko fase batean egonik ere pobrezia eta bazterketa gora doazela”, dio Eskubide Sozialen Kartako kide Bea Martxuetak. Honen aurrean, 2018ko martxoan abiatu zuten Babes Sozialeko Sistema Publiko eta Kalitatezko Baten Aldeko Herri Ekimen Legegilea (HEL) Gasteizko legebiltzarrean, eta urrian hura babesten duten 51.000 herritarren sinadurak aurkeztu zituen Kartak. Talde politikoek proposamena otsailean eztabaidatu eta bozkatuko dutela aurreikusten da. Hurrengo asteak, beraz, erabakigarriak izango dira ekimen herritarraren ibilbidearentzat (Nafarroako legebiltzarrak iragan urteko martxoan itxi zion bidea HELari).

TESTUA | ZIGOR OLEAGA

ñaki Uribarri Hernandez ekonomialaria da, eta 24 urte daramatza prestazio sozialen aholkularitza bulegoetan pertsoneri arreta eskaintzen. Lehenbizi Gasteizko Txiroekin Bat Eginik plataformarekin, eta hori desagertuz geroztik Argilan-ESKn. Talaia ezin hobea, datu horten atzean ezkututzen diren errealitate gordinak hurbiletik ezagutzeko.

1989an jaio zen gaur DSBE izenaz ezagutzen dugun prestazioa, garaian Gizarteratzeko Gutxieneko Diru Sarrera. Oro har 1989-2008 epealdia prestazio sozialak osatuen eta bermatuen egon diren garaiak lirateke Uribarriren uestetan, tartean onerako zein txarrerako izan ziren moldaketak egonik ere. “2008tik egiten diren aldaketa guztiak okerrerako dira”. Urte horretan, Patxi Lopezen gobernuak 18/2008 legea garatu zuen PSE

eta PPren aldeko bozkekin eta EAJren abstentzioarekin. Besteak beste, etxebizitza bakoitzeko bi DSBEko muga ezarri zuten: “Migranteei eta ikasleei bereziki, pisua konpartitu behar dutenei, kalte handia egin zien”. 2011n beste urrats bat eman zuen Gobernuak prestazioen murrizketan eta prekarizazioan, Gemma Zabaleta sozialista buru: “DSBE oinarrizko gizarte zerbitzuen saretik atera eta Lanbiden sartu zuen, zerbitzua asko okertzea ekarri zuena. Eta exijitzen zen antzinatasuna urte batetik hirura pasatu zuten”. EAJk laster hartu zuen Gobernu berriz ere: “Aurreko aldaketa guztiei eutsi, eta moldaketak eginez aizkorakada eman zuen: diru kopuruan %7ko beharpena inposatuz eta zenbatekoa Gutxieneko Soldatatik deslotuz. Ordutik aurrera, Lanbideren funtzionamendua oso-oso

gogorra izango da prestazioa jasotzen duten pertsonen aurka”.

Harrizkeoa da DSBEren eta gainontzeko prestazio sozialen bilakaera. Pobrezia eta bazterketa ekiditeko sortu ziren legeak eta baliabideak 80ko hamarkada amaieran. 2008tik aurrera, krisi kapitalistak eta gobernuen politika ekonomikoek pobretuak biderkatzen dituzten garaian hain zuzen ere, prestazio horien aurkako egiturazko ofentsiba abian du Eusko Jaurlaritzak: zenbatekoak murriztu ditu, baldintzak gogortu eta arreta prekarizatu du, prestazioen zein pobretuen kriminalizazio kanpainak abiatzen dira iruzurraz mezu faltsuak zabalduz edota diskurtso arrazistak garatuz. Ekonomiak hazkunde-zikloa berrartzean, ordea, ez dira krisiaren garaian eta horren izenean hartutako neurriak desaktibatatu.